

## **BILKETA PROTOKOLOA**

### **1 PROZEDURAK**

#### **1.1 Hasierako egiaztapenak**

Bilketarekin hasi aurretik egiaztatu:

- Ibilgailua hustuta eta garbituta dagoela
- Erregai-maila eta olio-maila egokia dela
- Nahikoa etiketa dituzula patrikan
- Intzidentzia erregistroak hartu dituzula

Aurrez egin beharreko lanak egin gabe baldin badaude:

- Kamioia eta pixoihalen kaxa hustu, garbitu eta usainak kendu
- Erregistroan apuntatu, beharrezko oharrekin batera

Kamioian pixoihalen kaxak ipini, gurpildun ontziak hartu eta bilketari ekin.

#### **1.2 Bilketarako guneak**

Komertzioetako ontziak ibilbidean bertan eta ibilgailua gelditzeko leku aproposetan jasoko dira.

Leku desegokian ateratzen badira ALDAKETA proposatuko da:

1. Komertzioaren izena eta edukiontzia apuntatu.
2. Edukiontzien *zerrenda gorrian* edukiontzi hori jasota dagoen egiaztatuko da.
  - a) Agertzen ez bada: jaso eta hemendik aurrera ateratzea nahi dugun lekuan ipini.
  - b) Agertzen bada: ez da bilduko.

Komertzio barruan ez da bilketarik egingo (koordinatzaileak kontrakorik agintzen ez badu).

Zerrenda gorrikoak ondo egiten badu apuntatu egingo da intzidentzia moduan.

#### **1.3 Bilketarako ordutegia**

Intzidentzia orrietan apuntatuko da orduagatik ez dela jaso eta ez materialaren kalitateagatik.

Bilketan atzerapen edo aldaketarik sortzen bada bulegoari abisatu beharko zaio.

Egun bakoitzean burutu beharreko lanak amaitu egin behar dira.

## 1.4 Materialak biltzeko irizpideak

### 1.4.1 Organikoa.

Edukiontzia marroian granelean edo poltsa konpostagarrian (plastikozko poltsarik gabe) atera behar da.

Intzidentzia	Bilketa	Intzidentziaren erregistroa
Organikoaren ontzian plastikozko poltsa	Organiko garbia jaso eta poltsa bertan utzi	Intzidentzien erregistro orrietan apuntatuko da.
Organikoa erretiratzeko moduko inpropioekin	Pegatina jarri, inpropioa erretiratu eta organiko garbia jaso. Inpropioa ontzian uzten da.	
Organikoa erretiratu ezin diren inpropioekin.	Pegatina jarri eta ez da bilduko.	
Ontzia edo kirtena puskatua	Bildu egingo da.	
Ontzia kalean denbora luzez	Ontzia hutsik egongo da.	
Ontzia lurrean edo irekita utzia	Bildu egingo da.	

### 1.4.2 Ontzi arinak

Etxebizitzek plastikozko poltsetan edo berrerabilgarrietan, dagokien zintzilikatzeakoan utzi behar dituzte.

Komertzioek granelean edo poltsa transparentearekin atera behar dituzte.

Intzidentzia	Bilketa	Intzidentziaren erregistroa
Komertzioen edukiontzitan ontzi arinak ohiko zabor poltsetan sartuta egotea	Ontzi arinak bildu, poltsa edukiontzi barruan utzi eta pegatina jarriko zaio.	Intzidentzien erregistro orrietan apuntatuko da.
Komertzioen edukiontzitan bereizi daitekeen porex-a egotea ontzi arinen tartean	Porex-a baztertu eta gainerakoa bilduko da. Pegatina jarriko zaio edukiontzinari.	
Komertzioen edukiontzitan bereizi ezin den porex-a egotea ontzi arinen tartean	Porex-a bada gehiengoa ez da jasoko, alderantziz bada bai. Pegatina jarriko da beti.	
Ontzi arinak bestelako frakzioen batekin nahastuta	Ez da jasoko eta pegatina jarriko da.	

### 1.4.3 Papera eta kartoia

Etxebizitzek paperezko poltsetan, poltsa berrerabilgarrietan edo soka batekin lotuta dagokien zintzilikatzekoan utzi behar dute. Lurrean utziko den kartoizko kaxan ere atera liteke.

Komertzioek edukiontzietan aterako dute, granelean eta kartoi handien kasuan ondo tolestu eta pilatuta atera behar dute.

Intzidentzia	Bilketa	Intzidentziaren erregistroa
Plastikozko poltsan aterata	Bildu egingo da, plastikozko poltsa alde batetik, aparteko kaxa batean, eta papera bestetik.	Ez
Tolestatu edo pilatu gabeko kartoia komertziotan	Materiala bildu egingo da.	Intzidentzien erregistro orrietan apuntatuko da.
Komertzioen edukiontzitan, deskarga automatikoa oztopatzen duen kartoi handia.	Jaso egingo da eta pegatina jarri edukiontzinari.	
Inpropio gutxi, bereizteko errazak.	Etxebizitzetara bildu egingo da, inpropioa alde batetik, aparteko kaxa batean, eta papera bestetik. Komertzioei inpropioa edukiontzi barruan utziko zaie eta pegatina jarri.	
Inpropio asko, bereizteko zaila.	Ez da bilduko eta pegatina jarriko zaio.	

### 1.4.4 Errefusa

Errefusaren kalitate kontrola garrantzitsua da.

Etxebizitzek kubo grisaren zintzilik atera behar dute.

Komertzioek edukiontzi grisaren: granelean edo poltsa transparentean.

Intzidentzia	Bilketa	Intzidentziaren erregistroa
Eskuraerrazak diren material birziklagarria nahastuta, organikorik gabe.	Komertzioen kasuan birziklagarria eta eskuraerraza den materiala utzi eta pegatina jarriko zaio edukiontzinari. Etxebizitzetara jaso egingo zaie.	Intzidentzien erregistro orrietan apuntatuko da.
Eskuraerraza ez den material birziklagarria nahastuta	Ez da bilduko eta pegatina jarriko zaio.	

### 1.4.5 Bestelako gertaerak

Gertaera	Bilketa	Intzidentziaren erregistroa
Ondo bereizitako materiala, egunez nahastuta	Ez da bilduko eta pegatina jarriko zaio.	Intzidentzien erregistro orrietan apuntatuko da.
Berandu ateratzea	Bertatik pasa eta ikusiz gero, jaso egingo da	
Edukiontzia zikinak egotea	Bildu egingo da	
Poltsak lurrean, ondo bereizi gabe	Pegatina jarri eta ez da bilduko. Beste zerbitzuekin koordinatu noiz eta nola jaso. Poltsa irekirik edo puskaturik balego, jaso egingo da.	

### 1.4.6 Poligonoetako bilketa

Gertaera	Bilketa	Intzidentziaren erregistroa
Edozein frakzio inpropioekin	Ez da bilduko	Irakurgailuaren bidez erregistratuko da.
Errepikatzen den intzidentzia larria	Ez da bilduko	
Edukiontzietatik kanpora poltsetan ateratzea	Edukiontzietatik kanpora dagoen ezer ez da jasoko.	
Ontziak behar izatea		Poligonoetako erregistro orrietan apuntatuko da.
Ontziak puskatuak edukitzea		
Errefusaren ontzia bete gabe ateratzea	Bildu egingo da.	Irakurgailuaren bidez erregistratuko da.
Edukiontzia ingurua oso zikina, kanpotarrek bertan poltsak uzten dituztelako		Poligonoetako erregistro orrietan apuntatuko da.

### 1.4.7 Pixoihalak

Pixoihal bezala onartuko dira: pixoihalak, konpresak edo tanpoiak, animalien gorotzak eta kasu berezien eguneroko sendaketak.

### 1.5 Aurreko bilketetan alde batera utzitako materialen bilketa

Ondo bereizitakoak zati horri dagokion egunean bilduko dira.

Nahastutakoak errefusa jasotzea tokatzen den egunean jasoko dira. Hala ere, maiz hondakin nahastuak pilatzen diren lekuak asteen behin baina gehiagotan txukunduko dira.

## **1.6 Deskargak**

### **1.6.1 Pixoihalen deskarga**

Herri bakoitzeko transferentzia gunetan horretarako prestatutako 1000Lko ontzietan hustuko dira. Behar den guztietan hustuko dira eta bilketaren amaieran beti.

### **1.6.2 Materialaren deskarga**

Kamioia ezin da inoiz materialez kargatuta utzi.

Frakzio bakoitzaren helmuga alda daitekeenez, koordinatzaileak agindutakoa jarraituko da beti eta berak erabaki moduan transferentzia gunetan ipinitako kontenedoretan edo tratamendu zentroetan deskargatuko da.

## **1.7 Atez ateko bulegoarekin harremanetan**

Biltzaileak telefonoari etengabe begira egon beharko du, koordinatzailearekin eta informazio bulegoarekin kontaktuan egoteko.

Egunero bilketan jaso gabe geratzen denaren berri eman beharko zaio koordinatzaileari, informazioa bulegora garaiz iritsi dadin.

### **1.7.1 Intzidentzien erregistroak entregatzea**

Bilketa amaitu ondoren intzidentzia erregistroak bulegora eraman behar dira ahalik eta azkarren.

Zerbitzuaren erregistroa hurrengo egunean bertan eraman beharko da bulegora.

### **1.7.2 Bilketako agiriak entregatzea**

Pisuen albaranak eta bilketako agiri desberdinak jaso eta hurrengo egunerako eraman beharko dira informazio bulegora.

## **1.8 Garbitasunak**

### **1.8.1 Bilketarako ibilgailuen garbitasuna**

Bilketa ibilgailuak, gurpildun kuboak eta pixoihalen ontziak barrutik eta kanpotik garbitu behar dira koordinatzaileak agintzen duen maiztasunarekin, salbuespenak salbuespen.

### **1.8.2 Emergentzia eremuetako edukiontzien garbitasuna**

Zuzendaritza mahaiak erabakitako maiztasunarekin garbituko dira.

Edukiontziak barrutik eta kanpotik garbitu behar dira.

Honako pausuak jarraituko dira:

- a) Lurrean etzan euri-uren isurbidearen aurrean
  - b) Garbitasun sakona egin
  - c) Zutitu eta beheko estalkia ireki
  - d) Kanpotik ur-presioz garbitu eta ingurua ere bai
  - e) Beheko estalkia itxi
1. Ur-instalaziorik ez duten emergentzia eremuetan: edukiontzien trukaketa egin eta pabiloian garbitu.


### **1.9 Istripuak**

Istripuren baten tartean gertatuz gero honako pausu hauek eman beharko dira derrigorrean:

- Parte bate
- Parte bate ezin bada (adibidez, autoaren jabea ez dagoelako bertan), udaltzainei deituko zaie eta beraiek etorri arte lekuan bertan itzarongo da partearen dagokion zatia bete.
- Parte atez ateko bulegora eramango da eta koordinatzaileari gertatuaren berri emango zaio.

## **2 Erregistroak**

### **2.1 Eguneroko fitxa**

	<b>BILKETAREN EGUNEROKO FITXA</b>	<input type="checkbox"/> Gauean <input type="checkbox"/> Goizean <input type="checkbox"/> Arratsaldean
---	-----------------------------------	--

Data _____			<input type="checkbox"/> Hernani	<input type="checkbox"/> Usurbil	<input type="checkbox"/> Poligonoak Hernani
Ibilgailuaren matrikula:	Hasierako ordua:	Km:			
<input type="checkbox"/> Organikoa	<input type="checkbox"/> Ontzi arinak	<input type="checkbox"/> Papera/kartoia	<input type="checkbox"/> Errefusa	<input type="checkbox"/> <b>Besteak</b> _____	
<b>Hernaniko rutak:</b>		<b>Usurbilgo rutak:</b>		<b>Poligonoak Hernani:</b>	
<input type="checkbox"/> Horia	<input type="checkbox"/> Urdina	<input type="checkbox"/> Arroxa	<input type="checkbox"/> Berdea	<input type="checkbox"/> Herria	<input type="checkbox"/> Polig. <input type="checkbox"/> Polig.2
<input type="checkbox"/> Errefusa osteguna					
<b>Gidaria / Langile 1:</b>	<b>Langile 2</b>		<b>Langile 3</b>		
<b>Jasotako inzidentziak</b> (zenbat):	<b>Jasotako inzidentziak</b> (zenbat):		<b>Jasotako inzidentziak</b> (zenbat):		

HUSTUTZEEN DATUAK	
<b>Lehenengoa:</b> Hasierako ordua Amaierako ordua: Hustutzearen Tn:	<b>Bigarrena:</b> Hasierako ordua Amaierako ordua: Hustutzearen Tn:
<b>Hirugarrena:</b> Hasierako ordua Amaierako ordua: Hustutzearen Tn:	<b>Laugarrena:</b> Hasierako ordua Amaierako ordua: Hustutzearen Tn:

IBILGAILUEN GARBIKETA	
Matrikula: Hasierako ordua Amaierako ordua:	<b>Oharrak:</b>

<b>Beste lanen bat</b> (egin bada):
<b>Oharrak:</b>

Organikoa, Ontzi arinak eta Papera/Kartoia direnean: PARDELAK UZTEA	
Lehenengo hasierako ordua: Lehenengo bukaerako ordua:	Bigarrenengo hasierako ordua: Bigarrenengo bukaerako ordua:

Hamaiketako hasierako ordua:	Zerbitzuaren bukaerako ordua:	Bukaerako km:
Hamaiketako bukaerako ordua:		
Bukatu da ruta guztia    Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>		Sinadura:

**2.2 Ibilgailuen mantenu fitxa**
**IBILGAILUEN MANTENU FITXA**

<b>Ibilgailuaren matrikula:</b>		
<b>Data:</b>	<b>Biltzaile taldea:</b>	
<b>IBILGAILUA</b>	<b>NORK/NOIZ PAUTA</b>	<b>ZER EGIN BEHAR DA</b>
6266GWX	Astelehena (Pello)	<input type="checkbox"/> KABINA GARBIKETA  <input type="checkbox"/> NIBELAK REBISATU  <input type="checkbox"/> ENGRASEA  <input type="checkbox"/> TRESNAK BERRAZTERTU  <input type="checkbox"/> GARBIKETA OROKORRA  <input type="checkbox"/> GURPILAK
8950JNY	Asteazken goiza (Hernani)	
7896BSM	Osteguna (Altzari bilketa)	
6984HHY	Osteguna (Usurbil)	
5988GPR	Ostiral goiza (Hernani)	
1119CDV	Ostirala (Olaizola*)	
0547JMM	Ostirala (Olaizola*)	
0719JDW	Larunbata (Usurbil)	
Eginaren sinadura		
AZALPENAK:		

\*Hamabostean behin



## 2.3 Ibilgailuen matxura txikien mantenurako eskaera orria

MATXURA TXIKIEN MANTENURAKO ESKAERA ORRIA

Matrikula: \_\_\_\_\_

Langilea: \_\_\_\_\_

Egoera: Konponketa behar du  Arazorik gabe

### Eskaeraren deskribapena:

---


---

---

---

---

### Matxuraren identifikazioa:



**Gurpilen errebisioa:**Eskaeraren Deskribapena: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_Konponketa behar du       Arazorik gabe **Ibilgailuen istripu / Kolpeak. Datuak.**

Non: \_\_\_\_\_

Nola: \_\_\_\_\_

Noiz: \_\_\_\_\_

Konponketa behar du       Arazorik gabe **Eskaera data**

201 / /

Sinadura:

**Konponketa data**

201 / /

Sinadura:

**Koordinatzailearen oharrak**\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Konponketa estimazio data: 201 / /

## 2.4 Intzidentzien erregistroa. Frakzio bakoitzeko bat.

### 2.4.1 Organikoa

Intzidentzia motak:

1. Organikoa, erretiratu ezin diren inpropioekin.
2. Konpostatzearen pegatina izanda, organikoa atera.
3. Organiko garbia, konpostagarriak ez diren plastikozko poltsetan, ontzirik gabe.
4. Organiko garbia, konpostagarriak ez diren plastikozko poltsetan, ontzi barnean.
5. Organikoa poltsa konpostagarrian, kuborik gabe.
6. Organikoa erretiratu daitezkeen inpropioekin.
7. Ontzia kalean denbora luzez edo lurrean edo irekita.
8. Organikoa egunkarietako paperarekin.

Data: 2010/11/02		Biltzaile-ekipoa: IBAN - ITXASO			
Ordua	Kokapena: zintzilikatzekoaren zk. edo helbidea. Komertzioa	Intzidentzia mota	Etiketa jarri da	Jaso da	Oharrak:
9:10	LUS0000291	1	BAI	EZ	

### 2.4.2 Ontzi arinak

Intzidentzia motak:

9. Ontzi arinak bestelako frakzioren batekin nahastuta.
10. Komertzioetako ontzi arinak transparenteak ez diren plastikozko poltsetan

Data: 2010/11/02		Biltzaile-ekipoa: IBAN - ITXASO			
Ordua	Kokapena: zintzilikatzekoaren zk. edo helbidea. Komertzioa	Intzidentzia mota	Etiketa jarri da	Jaso da	Oharrak
10:45	LUS0000355	9	BAI	EZ	PLASTIKOZKO JOSTAILUAK ONTZIEKIN

### 2.4.3 Papera eta kartoia

Intzidentzia motak:

11. Papera eta kartoia inpropio larriekin, jaso ezin dena.
12. Papera eta kartoia inpropio gutxirekin, bereizteko moduan.
13. Papera eta kartoia tolestatzeke edo lotu gabe ateratzea.
14. Papera eta kartoi garbia plastikozko itxitako poltsetan ateratzea.

Data: 2010/11/02		Biltzaile-ekipoa: IBAN - ITXASO			
Ordua	Kokapena: zintzilikatzekoaren zk. edo helbidea. Komertzioa	Intzidentzia mota	Etiketa jarri da	Jaso da	Oharrak
11:30	AIZKORRI SOZIEDADEA	13	EZ	BAI	

### 2.4.4 Errefusa

Intzidentzia motak:

15. **Errefusa**, organikoa, papera/kartoia edo ontzi arinekin **nahastuta**.
16. Komertzioa: errefusa, transparenteak ez diren poltsa handietan.
17. Errefusa kubotik kanpo, boluminosoak (altzariak, jostailuak, etxeko tresnak...)
18. Errefusa inpropioekin (etxeko elektrotresna, pila etabar)
19. Errefusa ondo sailkatuta baina boltsan, kuborik gabe.

Data: 2010/11/02		Biltzaile-ekipoa: IBAN - ITXASO			
Ordua	Kokapena: zintzilikatzekoaren zk. edo helbidea. Komertzioa	Intzidentzia mota	Etiketa jarri da	Jaso da	Oharrak
12:40	KONTSEJU ZAHARRA 9	15	BAI	EZ	

#### **2.4.5 Orokorrak**

Intzidentzia motak:

20. Hondakinak boltsatan lurrean.
21. Hondakinak, gaizki ateratzen edo egutegi/orduz/lekuz kanpo.
22. Ontziak: kirtena puskatuta, pegatinarik gabe, zikinak edo erabilera baldintza egokietan ez mantentzea.
23. Beste edozer, hondakinak era desegokian kudeatzea eragiten dutena.